



LANDABIDEA URRESTI, Xabier (ed.)

K+ : Zientziak eta Humanitateak COVID-19 osteko begirada multidiziplinarretik

Bilbo : Udako Euskal Unibertsitatea, 2020

162 or. ; 24 cm

ISBN: 978-84-8438-770-1

Egun, argitaratua izateko ezein artikuluk formula kanonikoa moduan “Covid 19aren eragina mundu mailan” azpimarratuz hasi behar duela jasotzen du tonu ironikoan aipagai dugun liburua (140. orr.). Testu hau ere gisa horretara hasteko tentaldia izan dugu. 2019ko amaiera aldean Txinako Wuhan eskualdetik heldu zitzaizkigun lehen berriak eta, geroztik XXI mendeko pandemia larrietakoari bidea eman zion. Urte amaieran hedabide nagusietako informatiboetan Txinatik heltzen zitzaizkigun irudiak harrigarriak ziren: milioika pertsona etxeratze agindupean, dron bidezko kontrolak bai eta zientzia fikzioko film batetik ateratakoak ziruditen irudiak, tartean, nekazari txinatar bat zuriz jantzitako bi pertsonen salabardo erraldoi batekin ‘harrapatzen’ –zentzu metaforikoan, huts bat eginagatik, etxeratze agindua urratuaz– bai eta materialki ere. Anekdotikoak ziruditen gertakari haiek ordutik beste esanahia bat hartu dute eta egundaino pandemiak eragindako hildako eta gaixoez ez ezik, pandemiaren inguruan sortu diren eraldaketak, aukerak, eta arrakalak aztergai bilakatu dira zientziaren esparru eta alor guztietarako. Horren adibidea dugu aipagai dugun liburua.

UEUren eskutik eta Xabier Landabidea Urrestiren zuzendaritzapean prestatutako edizioa da eta, Errenteriako udalak UEUekin hitzarmenean 2020an Torrekua eraikin historikoan Humanitate Digitalen Gunea (HDG) sorreraz geroztik beronen lehen ekoizpena. Hitzarmena Covid-19ak markatutako pandemia betean gauzatu zen, eta liburua ere garai eta testuinguru hori bera hartzen du aintzat ertz askotatik jorratzeko. Sarrera eta postdataz gain, liburua 9 ataletan antolatua dago diziplina askotarikoetatik egindako ekarpenak batuz. Hitzaurrea Aizpea Otaegi Errenteriako alkateak egin du. Atal horietako bakoitzaren hasieran, litografia bat. Guztira 12 kapitulu hartzen ditu liburua, 27 egileren eskutik.

Liburuaren antolaketak izaera koral bikoitza du, bai gaien aniztasunari dagokionez eta bai egileen kopuru eta afiliazio akademikoari dagokionez. Hala, Euskal Herriko ikerketa gune nagusietako (Euskal Herriko Unibertsitatea, UEU, CIC Nanogunea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea) egileak batzen ditu bere baitan, bai eta kanpoko ikerlariak ere (Bordeleko Montaigne Unibertsitatea), zein bestelako erakundeetakoak ere (EIZIE, Eusko Jauriaritza). Orotara 162 orri, atalka banatutako litografiak lagunduta eta grafikoren bat edo bestez gain, testua ez deneko bestelako euskarrik jasotzen ez dituen. Pandemiaren inguruan komunikabideetan 2020 hasieraz geroztik komunikabideetan etengabe eta kopuru ikaragarrietan sortu diren grafiko taula, mapa dinamiko¹ zein bestelako infografia baliabide sorta uholdeen aldean, aurkezpen soila du liburua.

Definizioz pandemia kontinente bat baino gehiagotara zabaltzen den epidemia bat da, populazioaren kopuru esanguratsu bati eragiten diona. Fenomeno gisara gizaterian pandemia ez da baitezpada zerbait berria. Bai ordea, oraingo honetan bizitza egokitu zaigun honen ku-deaketa zein haren inguruko hausnarketa prozesuak. Ezagutu gabeko egoera berri bati aurre

1. Horien artean ezagunenetakoa John Hopkins Unibertsitate estaubatuarrak sortutako uneoro eguneratzen den mapa interkatiboa <https://coronavirus.jhu.edu/map.html>

egin beharrean izan da gizateria, ez hainbeste pandemia batek eragiten dituen osasun larrialdi dagokionez, baina bai beronen kudeaketari dagokionez: globalizazioak eta internet moduko baliabide digital bidezko konexioak aldi berean eta kasik munduko txoko guztietatik pandemiaren bilakaeraren berri praktikan aldi berean denbora errealean izateko aukera izan dugu, baina baita pandemia menderatzeko ahaleginak denbora errealean mundu mailan izandako efektua. Besteren artean, orain artean Mendebaldeko gizartearen balio gorenetakoa den norbanakoen libertate eta eskubide murrizketa nabarmenak ekarri dituzte neurriok, iragan gerra testuinguru bati lotuta agertu izan direnak: alarma egoerak, etxeratze aginduak, zirkulazio mugatua, eta mota guztietako murrizketa eta kontrol egoerak. Baina baita zientziaren esparruan ere egiteko molde era-berrituak, halaberrez premiaren baitan sortutakoak.

Halakoxea da eskuartean duguna. Urgentziaren baitan pentsatu, sortu eta argitaratutako lana da. Egoera berri baten aurrean kasik modu simultaneoan bizitakoaren gaineko hausnarketa plazaratzeak suposatzen duen erroka du jomugan liburuak. Akaso honen inguruko hausnarketa sakonagoa estimatuko luke irakurleak: liburua osatzeko prozesuari buruzko datu gehiago, adibidez, koordinazio lanen inguruak, gai eta diziplinen hautaketari buruzkoak... Halako larrialdi egoera batek sortzen dituen estutasunak bazter utzi gabe. Pandemiak orain inoiz ez bezala aparteko aukera eskaini du gizarteaz –non bere nabardura, ezaugarriekin– pentsatzeko giza eta gizarte zientzien ikuspegitik.

Lehertu zenetik, gure munduan bat-batean eragindako krisi eta transformazioak bilzen dituzten jite bertuko argitalpen mordoxka agertu dira joan diren hilabeteetan. Horren isla dira pandemia gai ala/eta testuinguru gisa hartuta azken urte t'erdian argitaratu diren lanak. Horietako zenbait aipatzearen, *Reset. Reflexiones antropológicas ante la pandemia Covid-19* (Evangelidou & Martínez Hernáez, 2020), edota Gizarte Zientzien esparruan erreferentia den Estatu Batuetako SSRČek bideratutako baliabideen artean Covid eguneroko etnografikoen bilduma (SSRC, 2020). Frantziako Sciences Po Unibertsitateko Centre de Sociologie des Organisations ikerketa zentroak pandemiaren inguruko txosten berezia (Borraz, 2020) prestatu zuen ere 2020ko martxo-apirilean. Adierazgarria da, osasun emergentzia egoerak eta krisi testuinguru orokor batetan kokatutako material hauek guztiak online dohainik eskuragarri daudela. Medikuntza eta osasunaren esparruan txertoak lortzeko egindako elkarlan ahaleginak izan du ere islarik bestelako zientzia esparruetan. Ezagutza sortu bezain azkar partekatzea ezinbestekoa bihurtu da, azken hamarkadatan nagusitu diren kalitate kontrol dispositibo ustez zorrotzeri hein batetan iskin eginda.

“Garai berrietan betikoa ez da nahikoa” (57. orr.). Pandemiak zientzien alorrean aspaldidanik ezaguna zen arrakala inoiz baino gehiago bistarazi du ere: jakintza arlo batzuek besteak baino garrantzi handiagokoak kontsideratzen dira sozialki, tartean medikuntzari lotutakoak. XIX. mendeko zientzialari intelektualaren figura aski sendotua baldin bazegoen pandemia aurretik bistako arrazoiengatik, ikaragarri indartua atera da ondoren. Baina era berean, pandemiak agerian jarri du medikuntzaren aitzinamendu guztiak punta puntakoak eta ezinbestekoak izanik ere, gizartearen portaerak aztertu eta ulertzeko bestelako ezagutzen beharra. Hala ikusi ahal izan dugu komunikabideen eskaeratan, zein portaera hainbaten aurrean azalpenik izan ez eta egoerak ikuspegi zabalago batez aztertu beharraz. Finean, giza eta gizarte zientzien esparruak kontutan hartu beharra egoera konplexuen aurrean agerian geratu da. Eta pandemiak hasieratik erakutsi digu ezer izatekotan, globala izateaz gaina, konplexua izan badela oso. Hala, interpretazio marko zabalagoetarako bidea ematen du.

Hori guztiaz gain, Covid 19ak gizarte alorrean eragindako aldaketa eta transformazio nabarmenen inguruan “beroa”, hau da gertatu ahala egindako hausnarketa multzoa ekarri ditu. Horietako zenbait dira hain zuzen ere eskuartean dugun liburuan bildutakoak. Kapituluak nahiko desberdinak dira euren artean, ez soilik diziplinaren arabera, baizik eta beraien trataera eta sakonerari dagokionez: Talde hausnarketa saiakerak jaso asmo dutenak (adibidez kimika, sexologia eta batez ere, psikologiako kapituluak), itxuraz aurretiaz hasitako hausnarketari Covid-19aren egoerak eragindakoak gehitutakoak (Zientziak eta euskara Covid-19aren ispiluaren aurrean), baina baita pandemiak ekarritako egoerek beharren inguruan hausnartzera bideratutakoak (berezi hezkuntza eta arkitekturaren inguruko kapitu-

luak). Horietan bereziki aurretiaz detektatutako gabezia eta beharrak seinalatzen dira: hainbatetan aipatutako arrakala digitala maila gorenera areagotu izana, hezkuntzaren kasuan, adibidez. Bestalde, zaintzarako arkitektura, espazio pribatu eta publikoaren arteko bereizketaren lausotzea, zein etorkizunera begira inoiz baino agerikoago daude.

Atal batzuk ahulago ageri dira oinarri duten materialari dagokionez. Euskararen normalizazioz diharduen atala, adibidez, beroan sortu eta jasotako inkesta baten emaitza aurkezten dituen, metodologiaz ezer gutxi aipatu gabe. Aldiz, itzulpengintzari buruzko atalak erlojuaren kontra jardun beharrak ekarritako sorkuntza/irtenbideez hausnarketa interesgarria proposatzen du, hila ala biziko informazioa herritarrei ulertzeko moduan helarazi beharrak dakarren presioari buruz, eta euskal hiztunez gain, gurean dauden beste gutxiengo batzuegana iristeko zailtasunez. Azkenik, itxialdiak agerian utzi zuen kulturaren beharra: beronen funtzio sozialaren testuinguruan, artea eta artearen historiari buruzko atalek beronen kontsumoaz ez ezik, sorkuntza prozesuaz ere pentsarazten digute. Bizi dugun garaia Izurri Beltzarekin gerta moduan berezko arte produkzio bat sortuko den galdera pausatzen dute egileek. Ildo honetan, interesgarria zatekeen ere guztiok derrigorrean bizi behar izan genuen itxialdian egindako sorkuntza prozesuen adibideak ekartzea ere. Besteren artean, Donostiako Arteko galeriak etxea ardatz hartuta prestatutako erakusketa kolektiboa², zein arkitektura esparrutik Euskal Herriko nazioarte mailara igaro zen Covid Study Houses ekimena, geroztik liburu formatuan argitaratu direnak (A.A., 2021 eta Ushijima, 2020).

Faltan dira, zentzu orokorrean, nazioarteko erreferentzia gehiago –akaso liburua prestatu zen garaian egun ez bezala, oraindik eskuragarri ez zirelako?– pandemiaren inguruko traieran, Euskal Herriko errealitatea hobeto kokatzen lagunduko luketenak. Faltan dira ere, gizarte zientzien esparruan antropologia zein soziologiatik egindako ekarpenak. Bestalde, Euskal Herrian bertan sortutako zenbait ekimenen berri jasotzen bada ere liburuan eskertuko lirateke ere Covid-19aren inguruan bilketa eta hausnarketarako ekimen iradokitzaileak aipatzea, hala nola Labrit ahozko ondarearen bilketan diharduen enpresak hainbat herritan abian jarritako pandemiaren inguruko testigantza bilketa proiektuak³, ahozkotasanaren eta memoria ikerketa esparruetan biziki interesgarriak direnak.

Hori guztia kontutan harturik, pozgarria da euskaraz ere hain azkar kasik bi urtez gure bizitza baldintzatu eta oraindik ere baldintzaten jarraitzen duen fenomeno baten inguruan diziplinarteko ekarpenak biltzen dituen liburu bat eskuarte izatea. Eta are gehiago, esparru nabarmena eskaintzea humanitateei. Boterearen begietan marjinalak diren giza eta gizarte zientziak, gizartearentzat funtsezkoak direla gogorarazi ziguten pandemia lehertu eta lehen hilabeteetako egoera gordinenean (Borraz, 2020).

Liburuak badu bestelako meriturik ere. Horien artean azken hamarkadatarako joerari pandemiak astindu gogor bat eman izana zientziak euskarari emandako ekarpenen alorrean: hala, COVID 19aren inguruan sortutako euskarazko produkzio zientifikoa neurtzeko goizegi bada ere, egileek azpimarratzen dute “zientzietatik euskarari egiten zaien ekarpen nagusiak dira lexikoaren eta erregistro berrien bidez euskara aberastea, euskararen prestigio handitzea eta euskaraz edozer egin daitekeela frogatzea” (146. orr.).

2021eko udazkenetik begiratuta, izenburua *K+: Zientziak eta humanitateak covid-19 osteko begirada multidiziplinarretik* optimistegia ageri zaigulakoan nago: oraindik ere pandemia gainditzeko hilabeteak joango direla iragartzen ari baitira osasun aditu eta agintariak, nazioarte mailan. Ikerketa emaitzak jasotzeko goizegi den arren, interesgarria da bizitzea tokatu zaigun egoera berri honen gaineko hausnarketa bilduma bat izatea. Etorkizunera begira zoonosiak eta pandemiak maizago bizitzea egokituko zaigula iradoki dute jada hain-

2. Ander Ushijimak komisariatutako “Habitar desde el arte” erakusketa (2020-10-08/2021-01-8 bitarte). www.artekogallery.com

3. Adibidez Atarrabiako udalaren enkarguz egindako “Km2 1eko memoria” dokumentala (Labrit Ondarea, s. f.).

bat ikertzailek, azken hamarkadetako hainbat pandemia aintzat hartuta (hiesa, hegazti gripea, ebola). Nola zahartuko dira bertan jasotako ekarpenak? Analisisik baino, hausnarketatik eta batez ere lekukotza izaera gehiago duten lanak biltzen ditu, apenas tarterik egon baita ikerketa proiektu bateko datu bilketa prestatzeko pandemia lehertu eta liburua argitaratu bitartean. Halakoetan testuek iraungitze data ote duten galdetzen diogu gure buruari. Baina era berean egoerak zein azkar aldatzen diren ikusirik, etorkizunera begira lekukotzak biltzeak zer nolako garrantzia duen inoiz baino agerikoago gelditzen da.

Bibliografia

- A.A. (2021). *Covid Study Houses*. Katakarak. <https://www.katakarak.net/cas/lib/covid-study-houses>
- BORRAZ, O. (2020). *Dossier Sciences sociales en temps de crise: Covid 19 | Sciences Po CSO - Centre de sociologie des organisations*. <https://www.sciencespo.fr/cso/fr/content/dossier-sciences-sociales-en-temps-de-crise-covid-19.html>
- EVANGELIDOU, S., & MARTÍNEZ HERNÁNDEZ, A. (2020). *Reset: Reflexiones antropológicas ante la pandemia de COVID-19* (1.ª edición). Publicacions de la Universitat Rovira i Virgili.
- Labrit Ondarea. (s. f.). *Atarrabiako udalak "Km² 1ekomemoriak" izeneko ikus-entzunezkoa estreinatuko du maiatzaren 27an*. Recuperado 1 de diciembre de 2021, de <https://labrit.net/atarrabiako-udalak-km%2b2-1eko-memoriak-izeneko-ikus-entzunezkoa-estreinatuko-du-maiatzaren-27an/>
- LANDABIDEA URRESTI, X. (2021). *K+: Zientziak eta humanitateak covid-19 osteko begirada multidiziplinarretik*. UEU.
- SSRC. (2020). *Covid-19 Fieldnotes from Our Grantees*. SSRC Items. <https://items.ssrc.org/category/covid-19-and-the-social-sciences/covid-19-fieldnotes/>
- USHIJIMA, A. (2020). *Habitar desde el arte*. Arteko galeria. <https://www.noticiasdenavarra.com/cultura/2020/10/11/arketo-donostia-arte-covid/1085552.html>

Aitzpea Leizaola